

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure iritziz gaur egun, benetan funtsezkoa da produktu bati marketing on bat eman, eta modu egokian saltzea, eta gehiago lentillak bezalako produktu batean. Jendeak askotan, publizitatean ikusten dena bakarrik baloratzen du, horregatik gure lentillei publizitate on bat ematea erabaki dugu, jende guztiaren aurrean gure produktua itxura polita eta on batean saltzeko.

Hasteko, Instagram kontu bat irekiko dugu Paulentila_Lentilak izenarekin, kontu honi berebiziko garrantzia emango diogu, izan ere, gure iturri garrantzitsuena izatea nahi dugu. Bertan, zozketak, promozioak, kolaborazioak eta beste hainbat ekintza egitea pentsatzen dugu.

Horrez gain, GAZTEA irradian irratsaio bat egiteko ideia dugu, honekin gure lentillen promozioa gure ahotan entzuteko aukera izango dute entzule guztiek. Amaitzeko Tik Tok kontu bat ere irekiko dugu bideo motzetan gure lentillen eraginkortasuna erakusteko.

Bidaia motzak moto bidez egingo ditugu, batez ere Euskal Herri mailako eskaerak, hemendik kanpoko eskaerekin berriz, Correos bidez banatuko ditugu.